

BILBAO EKINTZA EPEL

IRAGARKIA

Bilbao Ekintza EPELen **Film Commission Unitateko buruaren** lanpostua behin betiko betetzeko deitutako lehiaketa espezifikoari dagokion hautaketa-prozesua epaitzeaz arduratzen den epaimahaiak, uztailaren 16an egindako bileran, hau erabaki du:

Lehenengoa. – Jakinaraztea epe barruan ez dela merezimenduen baremazio-faseko behin-behineko kalifikazioen aurkako erreklamaziorik aurkeztu.

Bigarrena. - Lanpostuak betetzeko prozesuan onartuak izan diren izangaiak lehenengo fasean (merezimenduen baremoa) lortutako **behin betiko kalifikazioak** onestea eta jendaurrean jartzea. Iragarki honi erantsi zaio zerrenda.

Hirugarrena.- Lehenengo fasean behin betiko GAI izendatua izan den izangaiari dei egitea memoria defendatzeko ahozko aurkezpenera etor dadin 2025eko uztailaren 22an, goizeko 11:30ean. Aurrez aurreko deialdi bakarra izango da eta Terminus eraikineko (Nafarroa kalea, 48001 Bilbo) bigarren solairuko bilera gelan egingo da (sarrera: ate nagusitik).

Azalpenerako memoriaren ale bat erabili ahal izango da, erregistroan aurkeztutakoaren berdina, egoki deritzon euskarri teknikoan. Izangaiak gidoi bat ere erabili ahal izango du, gehienez folio bat (bi alde) izango duena eta azalpena amaitzean Hornikuntza Organo Teknikoari emango diona.

Laugarrena. - Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Bilbao Ekintzako Zuzendaritzari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita, betiere Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112., 121. eta 123. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorriz.

Bilbon, 2025eko uztailaren 16ean

EPAIMAHAIKO IDAZKARIA
CARMEN FORTES MONTILLA

I. ERANSKINA

Lehengo Faseko behin betiko kalifikazioa (Merezimenduak)

ESP. BE 2025-0002

FILM COMMISSIONEKO UNITATEKO BURUZAGITZA

NAN/DNI	Lehenengo abizena Primer apellido	Bigarren abizena Segundo apellido	Izena Nombre	Antzintasuna Antigüedad (Gehienez/ máx.15 pto)	Lan-esperientzia Experiencia Profesional (Gehienez/ máx.15 pto)	Prestakuntza ikastaroak Cursos de Formación (Gehienez/ máx.12 pto)	Titulu ofizialak Títulos Oficiales (Gehienez/ máx.5 pto)	Hizkuntzak Idiomas (Gehienez/ máx.4 pto)	Guztira / Total 1 Fasea Merezimenduak Fase 1- Meritos (51 pt) / Min.:26
*45***08	ATXA	PICAZA	JOSE AGUSTIN	15,00	15,00	0,00	0,00	0,00	30,00